

Demokrazia birpolitizatzen

Peru Iparragirre

Azkenaldian irakurritako libururik interesgarrienetakoa iruditu zait Jule Goikoetxearen (Donostia, 1981) *Demokraziaren pribatizazioa, Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak* (Elkar, 2017). Idazlan akademikoa da, jatorriz Peter Lang argitaletxearekin ingelesez argitaratu, Danele Sarriugarterekin batera euskarari ekarri eta ostera berriatztatua.

Liburu konplexua da, gai asko jorratzen dituen eta lanketa horretan oso zorrotza dena. Halako saiakerek ohikoa duten eran, aipu, erreferentzia eta datu ugari biltzen ditu *Demokraziaren pribatizazioa*-k, egilearen tesiak oinarritzen eta indartzen dituenak. Goikoetxearen ekarpenak, dena dela, maila batean baino gehiagotan erabil daitezkeelakoan nago, oinarrian filosofia politikoa eta zientzia politikoen ko-

rronte nagusiei egiten dizkien kritiketatik patriarkatu kapitalistari eta demokraziaren pribatizazioari aurre egiteko esanahi eta ikuspegi berriak egunerokotasuneko diskurtsoetan txertatzeko tresnak ematen baititu.

Urgentziatzko liburua iruditu zait, demokrazia, estatuaz eta



'Demokraziaren pribatizazioa'

Idazlea: Jule Goikoetxea.
Argitaletxea: Elkar.

burujabetzaz ari garen aldi honetan (honetan ere) noranzko bat erakusten duena, besteak beste, demokrazia, estatuaz eta burujabetzaz pentsatzeko gako intergarri eta garrantzitsuak artikulatuz.

Zazpi atal nagusitan banatuta dago liburua. Sarreraren ostean, non liburuaren nondik norakoak laburbiltzen dituen, Globalizazioari buruzko atala dator. Modu xehe batean kritikatu du bertan Europar Batasunaren gaur egungo gobernu-eredua, demokraziaren pribatizazioa bultzatzen duela argudiatuz eta mundu post-nazional post-subirano bat defendatzen duten ikuspegi liberal-kosmopolitaren eta arrazionaltasun unibertsalisten aurka eginez.

Hurrengo atalean sartzen da gehiago *demokratizazioa* definitzeko lanean. Izan ere, Goikoetxearen iritiz, demokrazia ezin da helburu estatiko bat izan, prozesu dinamiko bat baizik, etengabeko gatazka. Beste hainbat kontzeptu ere berdefinitzen eta politizatzen ditu. Estatuaren aldeko defentsa egiten du liburuan zehar egileak, gure bizitzak arautzen dituzten mekanismo berdinek ahalduz gaituztela argudiatuz. Honela dio atalaren

amaieran: «[p]olitizatu, konfrontazio politikoa garatu eta horren emaitza instituzionalizatu: horrela demokratizatu dira gizarteak» (129). Izan ere, «[d]emokratizazioa prozesu bat da: gaitasunak eta autoritatea berdintzen ditu, eta norbanakoak eta kolektiboak boteretzen» (130).

Laugarren atalean *lurraldearen* gaiari heldu ostean (lurralderik gabe ez dago populaziorik, ez balizko gaitasun politikorik, eta, beraz, ezta demokraziarik ere), Euskal Herrira dakar azken atalean demokraziaren azterketa. Ikuspegi genealogiko (deskriptibo) batetik azaltzen ditu Euskal Herriko lurraldeetan eman diren (eta ematen diren) prozesu demokratikoak, EAEko, NFEko eta IEHko lurraldeen berezitasunak ikertuz.

Ezinezkoa zait liburuan ematen dituen xehetasunetan sartzea, baina biziki interesgarria iruditu zait bere proposamena, batez ere, dioen bezala, ezkerreko eta eskuineko estatu-fobia patriarkalaren aurrean ematen duen alternatiba.

Finean, ezin ukatu goi-mailako ikerketa bat biltzen duela liburu honek, kezka politikorik duen ororen partetik arreta merezi duena.



'Uda batez Kurdistanen'

Idazlea: Zekine Turkeri.
Itzultzaileak: Gerardo Markuleta eta Eneko Gartzia.
Argitaletxea: Elkar.

Duela lau urteko udan Irakeko Kurdistanera egindako bi- daia kontatzen du Zekine Turkeri kazetariak. Kurduen burujabetze urratsen lekuko izatekotan abiatu zena, ordea, Estatu Islamiarraren erasoaldiaren lekuko eta gerra kronikari bihurtuko zen.



Herri kontakizunak: Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan Maialen Moreno Zubeldia

'Herri kontakizunak Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan'

Idazlea: Maialen Moreno Zubeldia.
Argitaratzailea: EHU.

Ahozko literaturako kontaktuzunak bildu zituen Maialen Morenok Ipar Euskal Herrian. Bildutakoa aztertzean, ikusi zuen irri istorioak nagusi zirela, eta istoriooen egitura eta gaiak aztertutakoak bildu ditu lan honetan.

ERIKA

Ez noiz perfektua



Tekoa/Alfonso Bañers

Argitaletxea: Erika

'Erika. Ez noiz perfektua'

Idazlea: Alfonso Bañers.
Argitaletxea: Alfredo Piedrafita.
Argitaletxea: Erein.

Irakurle gaztetxoentzako lan hau inperfekzioaren aldeko manifestua izateko eta autoestimua aldeko mezua emateko bokazio sortua da. Triku bat du protagonista: Erika. Ustez perfektuak diren animalien artean irauten ikasi beharko du.

Mezu abegikorra

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Bigarren ale bat kalera-tu diote Ernesto eta Zelestina bilduma xar-mantari. Baliteke haurtzaroko oroitzapenekin halako zirku iturri labor bat sortu izana, 1982an euskaraz lehen aldiz kaleratu zenean *Zesar eta Ernestina Gedeonen bila* izenburua baitzuen album honek, itzultzailearen ez dakit zein apeta estrainoarengatik, jatorrizkoari kasu egiten badiogu: *Ernest et Célestine ont perdu Siméon*.

Bertan, haur txikienak ere ulertzeko moduko istorio bat kontatzen zaigu, panpina kuttunaren galerari buruz, koadroak diruditen ilustrazio batzuen bidez.

Dena bideratuta dago liburuan, baina tarte zabala uzten du irakurleak irudia interpreta dezan:

gertakariak eta emozioak, lekua eta bizipenak, denak daude atmosferan argitsu batean kokatuta, irakurleak gehiegizko (eta alferrikako) sufrimendurik gabe bizi dezan Zelestinen larrialdia, eta amaierako poza.

Abentura honetan ere, bere dohainak erakusten ditu Vincentek: alderdi tekniko-artistikoari dagozkionak; eta haurren heziketarako praktika abegikorak aldarrikatzen darabilen finezian.



'Ernesto eta Zelestina. Siméon galduta'

Idazlea eta ilustratzailea: Gabrielle Vincent.
Itzultzailea: Eva Linazasoro.
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.

Etika kontuak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Etxepare sariketa album ilustratuen zaleentzako erreferentzia da, eta euskal egileen kalitatea balioesteko iturri paregabea. Joan den urteko irabazlea ere txundigarria da alde guztiatik.

Etxe baten egitura duten ilustrazioak erabiltzen dira pertsona multzo heterogeneo bat aurkezteko: trabestia den gizasemea; nudismoa praktikatzen duen familia; barazkijaleak diren gurasoak euren seme txorizo zalearekin; etxetik sekula irteten ez den amona; Diogenes sindromea duen beste amona; queer filoso-fiari jarraiki bizi diren ikasle pare; atea zabalik duen kaiolatik ihes egiten ez duen txoria; hijab-a daraman emakume beltza euskaldun izateaz harrizten den

haurra; bakarriz bizita ere zorionsua den amona; gaeuz lan egiten duen okina; narrastiak musukatzen dituen laguna; eze-rekin harrizten ez den haurra.

Heldua naizen partetik gozatu egin dut irakurtzen. Baina ez dut ulertu zergatik gure gizartearen eztabaidagai direnak haurren bidez konpondu nahi diren, zergatik sinetsarazi haurrei euren baitan dagoela soluzioa, etika gazteen eta helduen ahala denean.



'Arraroa'

Idazlea: Aina Azpiazu.
Ilustratzailea: Paula Estevez.
Argitaletxea: Pamiela.